

## Udaberri honetan zure ihesaldia LEKEITIOTOUR-en ESKUTIK

Lekeitiotour-ek, Lea-Artibaiko turismo elkarteak, 2011ko udaberrirako hainbat ekintzetan oinarritutako eskaintza zabaldu du elkarteko establezimenduen bezeroentzat. Horrela, eskualdeko txokoak bisitatzearaz gain, establezimenduek hainbat aktibitate eskaini ahal izango dizkie euren bezeroei. Elkarteko establezimenduen bezeroek deskontuak izango dituzte aktibitateen prezioetan, berdin diolarik lagun talde handia edo txikia bada.

### Hauek dira eskaintzen diren aktibitateak:

- Bi orduko kanoan bidaiak Lea ibaian: Garrantz irla, Artzabal kalak, Santa Katalina-ko itsasargia, ontzigintza lekuak, eta marea errota. Aktibitate hau gidatua izango da, inguruko azalpenak emateko. %10eko deskontua prezioan elkarteko establezimenduen bezeroentzako.



- Bi orduko Ibilaldi gastronomikoa: bertoko tipikoa den txikiteoan arituko dira tabernarik taberna aktibitate hau aukeratzen dutenak, ardoa, txakolina edo eta sagardoa edanez, eta pintxoak janez. Bisitak gidatuak izango dira leku interesgarrien berri emateko.

- Bi orduko haurrentzako tailerrak. %15eko deskontua:

-Ginkana: umeei arrasto batzuk emanda Lekeitiotour ezagutzeko beste bide bat.

-Arrantza tailerra: gure kostaldean dauden arrain espezie ezberdinak ezagutzeko, itsas kopriloak egiten ikasteko eta bukatzeko, arrantzan ere arituko direlarik.

+ info: [www.lekeitiotour.com](http://www.lekeitiotour.com)



DATA	AKTIBITATEA	DATA	AKTIBITATEA	DATA	AKTIBITATEA
Apirila	10 Kanoa ibilbidea	Maiatza	1 Arrantza tailerra	Ekaina	3 Ibilbide gastronomikoa
	17 Ginkana		6 Ibilbide gastronomikoa		5 Arrantza tailerra
	22 Ibilbide gastronomikoa		8 Kanoa ibilbidea		12 Kanoa ibilbidea
	23 Ibilbide gastronomikoa		15 Ginkana		18 Ibilbide gastronomikoa
	24 Kanoa ibilbidea		21 Ibilbide gastronomikoa		19 Ginkana
	24 Ibilbide gastronomikoa		22 Kanoa ibilbidea		26 Kanoa ibilbidea
		29 Ibilbide gastronomikoa		26 Ibilbide gastronomikoa	

## Euskadiko produktu berriak: GR- 38, ARDOA ETA ARRAINAREN IBILBIDEA

Basquetour-ek, Turismoaren Euskal Agentzia denak, natura eta abentura produktu turistikoiei begira, Euskadiko Mendi- Ibilbiak produktua atera zuen 2008an, gure herrialdean badaudelako turismorako oso esanguratsuak diren ibilbideak.

Hauek dira Euskal Autonomi Erkidegoan lehengo fasean sortu diren ibilbideak:

- Oinez Arabako Mendialdean barrena
- Oinez Urdaibain barrena
- Ibilbideak eta ibilaldiak
- Debagoienan barrena
- GR 38, ardoaren eta arrainaren ibilbidea
- GR 120, hiru tenpluen ibilbidea

Egitasmo honen helburuak hurrengoak dira:

-EAEn ibilaldien eskaintza erakargarri bat sortzea, merkatuan dauden beste aukera batzuen aurrean lehiakorra egiten duten kalitatezko eta jasagarri ezaugarriekin.

-Eskaintza produktu turistikoaren ikuspuntutik sortzea, Natura Turismo merkatuaren segmentuan barruan, merkatuan orokorrean erraz ezagutzeko moduko markapean.

Gure eskualdetik igarotzen den ibilaldia GR-38a da, hau da, Ardoa eta Arrainaren Ibilbidea. Orain, proiektu honen baitan, ibilbideari indarra eman nahi zaio, produktu turistiko on bat sortzeko.



Horretarako, Basquetour-ek hainbat ekintza bete ditu 2010ean zehar produktua balioan jartzeko: egoeraren auditoriak, koordinazio plana garatu, promozio eta komunikazio plana egin, azoketan arkeztu, web gune berria, georreferentziak ezarri, eta abar.

Arraina eta Ardoaren berreskuratutako Ibilbide honen sorrera aspaldikoa da. Erdi Arora arte atzera eginez gero, garai hartan arraina eta ardoa zein garrantzitsuak ziren konturatuko gara, eta ondorioz, produktu bien merkataritza. Ibilbide honen bidez egiten zen, beraz, merkantzia garrantzitsu hauen garraio nagusia Bermeotik, Lekeitiotik eta Ondarroatik sardina bisigua eta sardinaz bidaltzen zirelarik, eta Errioxatik, Nafarroatik eta Gaztelatik ardoa, ozipina, gatza eta garia ekartzen zirelarik.

Orografia latza izen arren, hainbat mandazain ibiltzen ziren ibilbide honetan zehar atzera eta aurrera egunero XV. mendetik XVIII. mendeko hasiera arte, *Gaztelako Errege Bidearen* konponketarekin Urduñako mendateak garrantzia hartu zuen arte.

XXI. mende honetan ibilbide turistiko eta kultural bezala berreskuratu da, antzinako bere garrantzia berreskuratu nahian, XXI. gizaldiko ibiltari berrien gozameneko.

[www.senderismoeuskadi.net](http://www.senderismoeuskadi.net)

# Joseba Bergara, **AKELE JATETXEA** (Berriatua)



**Oraindik urtebete ez da igaro Akele jatetxearen atek ireki zenuenetik, zein da hilabete hauetako balantzea?**

Hasiera gogorra izan zen, dena perfektu egotea, eta bezeroak errepikatuko gogoarekin irtetea nahi nuen, eta horrek urduritasuna eta tentsioa eragiten zidan. Baina urte oso polita izan da, eta jendeak ondo erantzun dit.

**Nola erabaki zenuen langile izate-tik enpresari izatera pasatzea?**

Ikasten hasi nintzenetik izan dut ekintzaile kutsua, beti nahi izan dut nire jatetxea izan. Ikasketak amaitu

nituenean, erreferente diren jatetxe batzuetan lan egin nuen, Martin Berasategiren jatetxea, Zuberoa jatetxea, Makatzeta jatetxea, eta Boroa jatetxea, besteak beste. Esperientzia horien bitartez ikasitako eman zidan falta nuen konfiantza proiektu eder honetan sartzen erabakitzeko.

**Zer esango zenuke dela zu bereizten zaituena?**

Kalitatean oinarritzen da nik egiten dudana guztia: kalitatezko jakia, kalitatezko zerbitzua, eta orain kalitate turistikoa lortzeko programan ere sartuko gara buru belarri. Programa honek negozioa kudeatzen, eta eskualdeko beste enpresa batzuekin kontaktu zuzenagoa izaten lagunduko didala uste dut.

Nire jatekoak sasoiko produktuekin, edota ohikoak diren bertoko lehengai-ekin eginak dira, autore-sukaldaritzak kontzeptuaren barnean, elaborazioa eta aurkezpen originalekin.

**Zein da zuk prestatzen duzun platerik eta gustukoena?**

Denak prestatzen ditut mimo handiz, eta egiten dudana guztia dut gustuko, baina bat aukeratzekotan "Gillardeu ostra plantxan, cava krema eta lemon-grass ukituarekin" aukeratuko nuke. Bezeroen batek janariaren bat gomendatzeko eskatzen didanean, bere gustuak galdetu, eta horren arabera atsegin handiz ematen diot gomendioa. Gero, agurtzerakoan, gustuko izaten dut bere asegarritasuna jakitea, betiere hobetzen jarraitzeko.

**Zelan ikusten duzu eskualdeko Turismoa?**

Eskualde Txikia da Lea-Artibai, eta oraindik gauza asko daude egiteko. Herri-rik turistikoena Lekeitio ohi da, baina beste herri guztiek ere badaukate euren erakargarritasuna eta zer ikusia.

Ni Ondarrutarra naizen aldetik, Ondarroan ostatu gehiago egotea faltan botatzen dut, eta interesgarria izango litzateke, baita ere, portuan arrainean espezializatutako jatetxeren bat egotea, bertan baitauekagu Kantauri itsasoko lehengairik onenak.

**Zeintzuk direla uste duzu gure eskualdeko indarguneak turismorako?**

Asko dira gure indarguneak, aipagarrienak, bere egoera naturalean mantendutako kosta ederra daukagula, itsasoak eta mendiak osatzen duten binomio armoniatsua, eta gure turismo sektorea hasiberria dela esan dezakegunez, beste esparru batzuen esperientziatik ikasita, ibilbide polita egiteko aukera daukagula.

## Agenda...

### APIRILA

- 12,13, eta 14 Ondarroan: "Pakea Itsasontzia" egongo da ikusgai, goizetan ikastetxetzako eta arratsaldetan publiko orokorrenzako.
- 16 Lekeition: musika bandako kontzertua Santa Maria elizan.
- 21, 22: Aste Santuko elizkizunak.
- 30 Lekeitio: trainerilak Bizkaiko Txapelketa.

### MAIATZA

- 7 Lekeition: Euskal Herriko Umeen Kantu Txapelketako kanporaketa.
- 5 - 8, BEC - Barakaldo: Expovaciones Turismo Azoka.
- 5 Berriatua: San Gregorio jaiak.
- 13 Ondarroan: kontzertua Kofradia Zaharrean.
- 14 Ondarroan: Antxoa Eguna.

Lekeition: Kontzertuak.

- 14-15 Mendexa: Bizkaiko piraguiazaleen kontzentrazioa.
- 17-30 Ondarroan: arrantzari buruzko erakusketa.
- 20 -ekainak 5 Lekeition: Txotxongiloak, mundu bat txotxongilo erakusketa.
- 21 Lekeition: Euskal Erromeria.
- 29 Ondarroan: Ibilaldia 2011.

### EKAINA

- 4 Ondarroan: Ondarroako XVI. Triatloia. Lekeition: Iparraldeko Haizeak.
- 23-24 Ziortza-Bolibar eta Aulesti: San Juan jaiak.
- 25-26 Lekeition: 35. Euskal Ezkontza.
- 28-29 Lekeition eta Ziortza-Bolibar: San Pedro Jaiak.

### UZTAILA

- 2 Ondarroan: Zapatu Azule.
- 8,9 eta 10 Lekeition: 22. Nazioarteko Kale Antzerki Jaialdia.
- 16 Markina-Xemein: Karmengo Amaren jaiak.
- 17 Ziortza-Bolibar: Oiz mendiko erromeria.
- 22 Ziortza-Bolibar: Madalena eguna.
- 24 Lekeition: Estropadak Liga ATC.
- 25 Ondarroa, Lekeition: Santiago Jaiak-Fiesta Gallega.
- 30-31 Lekeition: Hegaluzeko Azoka.
- 11-15: Lekeition: Itsasoaren musika astea.
- 14-17 Ondarroa: Andra Mari jaiak.

### IRAILA

- 1-8 Lekeition: San Antolin jaiak.
- 16 Aulestin: Santa Eufemi jaiak.
- 29 Markina-Xemien: Arretxinaga. San Miguel jaiak.

## Jarduerak

### BARNETEGI TEKNOLOGIKOAK:

Eusko Jaurlaritzak, SPRI-n bidez, eta BASQUE-TOUR-k turismo sektoreari bereziki zuzendutako Bernetegi Teknologikoak antolatutako dituzte, mikro ETE eta enpresa txikietako gerenteei zuzenduta.

Bernetegi Teknologikoak IKT-en balioa zein den azaltzeko antolatutako diren ikastaro trinkoak dira.

#### Datak:

Maiatzaren 10 eta 11, Lekeition, Hotel Zubieta

Maiatzaren 2 eta 3, Mungian, Palacio Urgoiti

Maiatzaren 16 eta 17, Oñati, Hotel Santuario de Arantzazu

Ekainaren 6 eta 7, Argomaniz: Parador de Argomaniz

Prezioa: 60€ (Basquetour-en diru-laguntza barne)

#### Informazioa eta izena ematea:

<http://www.euskadinnova.net/eu/enpresa-digitala-eu/barnetegi-teknologikoa/index.aspx>

### "CONECTA TU NEGOCIO" EKINTZAK:

Google-ek erakunde publiko eta pribatu batzuekin batera Conecta tu Negocio egitasmoa martxan jarri du, negozioei beharrezko baliabideak eta laguntza eskaintzen die, ahal denik eta etekin handiena ateratzea Internetari.

Ekainak 14 - 18, Bilbon: Tour Take a Web Café: lehenengo web orria sortu ahal izateko zuzenean, eta 30 minutuko trebakuntza baliabide berri hau erabiltzen ikasteko. Orduetgia: goizeko 10:00tik iluntzeko 20:00era

Informazio eta izen ematea: [www.conectatunegocio.es](http://www.conectatunegocio.es)

## Diru laguntzak

### + DIGITAL@

Xedea: IKTak erabiliz barne prozesuak eta bezero, hornitzaile eta administrazioekin dituzten harremanetarako prozesuak digitalizatzen laguntzea.

Epea: 2011/11/17  
Esteka: [www.spri.net](http://www.spri.net)

### LEADER

Xedea: landa ekonomia dibertsifikatzeko, eta mikroenpresak sortu eta garatzeko laguntza programa.

Epea: 2011/03/10 - 2011/04/09  
Esteka: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

### NEKAZALTURISMO

Xedea: Nekazari turismoko establezimenduetan inbertsioak egiteko, nekazal-turismo berriak sortzeko, edo daudenak handitzeko edo berritzatzeko, beti ere, inbertsioak hasierako irekiera lizentziaren aldaketaren bat eragiten badu.

Epea: 2011/04/15  
Esteka: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

## INFORMAZIO GEHIAGO

Leartibai Garapen Agentzia  
Markina-Xemein 12 48270 Markina-Xemein  
Tel.: 94 616 90 88  
e-mail: [bbasterretxea@leartibai.com](mailto:bbasterretxea@leartibai.com)  
[www.learjai.com](http://www.learjai.com) • [www.leaibarra.com](http://www.leaibarra.com)

